**EBAZPENA, Hezkuntza Politiketako Sailburuordearena, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuen federazio eta elkarteei zuzendutako dirulaguntzen deialdia ebazten duena, 2024-2025 ikasturtean Ikastetxeko Hizkuntza-Proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotutako prestakuntza-jarduerak egin ditzaten (ELEANIZTASUNERANTZ).**

**RESOLUCIÓN de la Viceconsejera de Políticas Educativas, por la que se resuelve la convocatoria de subvenciones destinadas a las federaciones y asociaciones de centros privados concertados de enseñanza no universitaria, para la realización de actividades de formación relacionadas con los proyectos de innovación dentro del Proyecto Lingüístico de Centro durante el curso 2024-2025 (ELEANIZTASUNERANTZ).**

2024ko ekainaren 4ko Hezkuntzako sailburuaren Aginduaren bidez, dirulaguntza-deialdia egiten baita unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuen federazio eta elkarteei, ikastetxeko berrikuntza proiektuekin lotutako prestakuntza-jarduerak egin ditzaten ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruan, 2024-2025eko ikasturtean.

Eskabideak aurkezteko eta baloratzeko epea amaituta, 2024ko ekainaren 4ko Aginduaren 6. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta Ikaskuntzaren eta Berrikuntzaren zuzendariak proposatuta, honako hau

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.-** Eskaera egin zuten I. eranskineko itunpeko ikastetxe pribatuen federazio eta elkarteei zerrenda horretan adierazitako dotazioak esleitzea, 2024-2025 ikasturtean zehar, ELEANIZTASUNERANTZ alorreko berrikuntza-proiektuak egin ditzaten.

**Bigarrena.-** Dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira, aipatutako aginduaren 16. artikuluan adierazten den bezala.

**Hirugarrena.-** 2025eko ekainaren 16a baino lehen, ikastetxe onuradunek hauek aurkeztu beharko dituzte proiektuaren garapenari, egikaritzeari eta proposatutako helburuen lorpen-mailari, egindako jarduerei eta

Por Orden de 4 de junio de 2024, del Consejero de Educación, por la que se convocan subvenciones a las federaciones y asociaciones de centros privados concertados de enseñanza no universitaria, para la realización de actividades de formación relacionadas con los proyectos de innovación dentro del Proyecto Lingüístico de Centro durante el curso 2024-2025.

Concluido el plazo de presentación y valoración de solicitudes, de conformidad con lo establecido en el artículo 6 de la Orden de 4 de junio de 2024, a propuesta del Director de Aprendizaje e Innovación,

RESUELVO:

**Primero.-** Adjudicar a las federaciones y asociaciones de centros privados concertados relacionadas en el Anexo I, las dotaciones económicas asignadas para que realicen proyectos de innovación en ELEANIZTASUNERANTZ durante el curso 2024-2025.

**Segundo.-** El abono de las subvenciones se realizará en dos pagos, conforme al artículo 16 de la citada Orden.

**Tercero.-** Con fecha límite de 16 de junio de 2025, los centros beneficiarios deberán presentar un informe sobre el desarrollo, la ejecución y el grado de consecución de los objetivos propuestos, las actividades realizadas

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

proiektuaren ebaluazioari buruzko txostena, eta proiektuak eragindako gastuen justifikazioko kontu erraztua. Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 32. Artikuluaren arabera justifikatuko dira laguntzak.

**Laugarrena.-** Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan.

y evaluación del proyecto, así como la cuenta justificativa simplificada sobre los gastos derivados del mismo. La justificación de las ayudas se realizará conforme a lo dispuesto en el artículo 32 de la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones.

**Cuarto.-** Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Educación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar la notificación, conforme a lo dispuesto en el artículo 121 de la ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den egunean
Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma

LUCIA TORREALDAY BERRUECO
Hezkuntza Politiketako sailburuordea
Viceconsejera de Políticas Educativas

## I. ERANSKINA / ANEXO I

Onartutako eskaerak/ Solicitudes aprobadas

| Nº exp. | Asociación/Federación | Subvención concedida (€) | Abono 2024 (€) | Abono 2025 (€) |
|---|---|---|---|---|
| 1 | **Euskal Herriko Ikastolak** | 255.073,88 | 85.024,63 | 170.049,25 |
| 2 | **Kristau Eskola** | 204.915,00 | 68.305,00 | 136.610,00 |
| 3 | **Eusko Ikastola Batza (EIB)** | 352.315,88 | 117.438,63 | 234.877,25 |
| 4 | **Elizbarrutiko Ikastetxeak (EBI)** | 133.079,88 | 44.359,96 | 88.719,92 |
| 5 | **AICE/IZEA** | 46.650,00 | 15.550,00 | 31.100,00 |
| 6 | **Ikasgiltza** | 206.745,88 | 68.915,29 | 137.830,58 |
| | **Total** | **1.198.780,51** | **399.593,50** | **799.187,00** |